

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua elikadura osasuntsua errazteko sortutako zerbitzu bat da, eguneroko erritmo azkarrari egokitutakoa. Zerbitzu honen bidez, bezeroek hilabetero ordainketa bakarra egingo dute, eta horren truke astero etxera jasoko dute elikagai eta errezetaz osatutako kutxa bat. Kutxa bakoitza aste osorako pentsatuta egongo da, bazkaria eta afaria barne hartuz. Helburua da bezeroek ez izatea astero zer jan pentsatzen ibili beharrik, ezta erosketak egiteko denbora galdu ere. Kutxan sartzen diren elikagai guztiak aurrez neurtuta eta antolatuta egongo dira, errezetekin batera, sukaldaritza prozesua ahalik eta errazena izan dadin.

Produktu honek elikadura osasuntsua sustatzen du. Horretarako, kalitatezko osagaiak erabiliko dira, dieta orekatua bermatuz. Errezetak nutrizionalki egokiak izango dira, eta eguneroko behar energetikoak kontuan hartuta diseinatuko dira. Horrela, bezeroek modu eroso eta praktikoan janari osasuntsua kontsumitu ahal izango dute, denbora edo ezagutzarik falta izan gabe. Hasiera batean, produktu mota bakarra eskainiko da, oinarritzko eta orekatua, bezero mota zabal bati zuzendua. Hala ere, etorkizunera begira, zerbitzua handitzeko asmoa dago, eta beste aukera batzuk eskaintzea aurreikusten da. Besteak beste, “express” aukerak, prestaketa azkarragoa duten errezetekin; menu proteikoak, kirola egiten duten pertsonentzat; edo bestelako behar espezifikoetara egokitutako kutxak.